

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuaren bularretako detekzio goiztiarraren programan hitzartutako emakumeen % 86,8k parte hartzen du bertan

Urtean 300 tumore detektatzen dira, baina hilkortasuna % 35 jaitsi da

Viernes, 19 de octubre de 2012

Nafarroako Gobernuaren bularretako minbiziaren detekzio goiztiarraren programan hitzartutako emakumeen % 86,8 joaten dira hitzordura eta, haietatik, % 96,3 hurrengora itzultzen dira, [Nafarroako Osasun Publiko eta Lan Institutuak bularretako minbiziaren aurkako Munduko Eguna gaur ospatzen dela-eta](#) emandako datuen arabera. Gainera, programaren xede diren 45 eta 69 urte bitarteko Nafarroako emakume guztien % 88,7k programan

parte hartu du noizbait. Urtean 300 tumore detektatzen dira batez beste, baina hilkortasuna % 35 jaitsi da detekzio goiztiarrari eta terapia berriei esker.

Zehazki, 90ko hamarkadaren amaieran eta 2010ean hilkortasun-tasa 17,9tik 9,7ra jaitsi da 100.000ko. Erregistro altueneko denboraldiko tasa erreferentziatzat hartuz, baheketa hasi zen urteekin bat datorrena, jaitsiera % 40koa da. Aldiz, azken urteotako bularretako minbiziaren eragina handitu egin da, hein handi batean detekzio goiztiarragatik, baina kaltetutako emakume gehiago badago ere, gutxiago hiltzen dira arrazoi horrengatik.

Nafarroako bularretako minbiziaren detekzio goiztiarraren programa

Bularretako minbizia, minbiziaren artean hiltzeko kausa nagusietakoa da Nafarroako emakumeen artean. Patologia horrengatik hilkortasun handiena lortzeko xedearekin, Nafarroako Gobernuak 1990eko martxoan bularretako minbiziaren detekzio goiztiarraren programa abian jarri zuen.

Programa Nafarroan bizi diren 45-69 urte arteko emakume guztientzat da, bi adin horiek barne. Gaur egun, programaren 12. bira garatzen ari da, eta bertan 1943ko urtarrilaren 1ean eta 1968ko abenduaren 31 artean jaiotako emakumeak sartzen dira barnean. Familian



Bularretako minbiziaren detekzio goiztiarraren programako logotipoa.

aurrekariak dituzten (ama, alabak edo ahizpak) 1969ko urtarrilaren 1etik eta 1973ko abenduaren 31 artean jaiotakoak era sartzen dira.

Mamografia da aplikatzen den teknika, eta bular bakoitzeko bi proiektzio egiten dira, zeihar-erdi-albokoa eta buru-isatsekoa. Azterketen arteko tartea bi urtekoa da, edo urtebetekoa hala gomendatzen duen patologiaren bat detektatzen bada.